



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko abenduaren 14a

140. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sarrigurengo Udalez gaindiko Plan Sektoriala alda dezan. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua egokitu dezan, ekidite aldera kontratazio publikoan hura abusuzko moduan eta proportziorik gabe interpretatzea. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako udalekiko koordinazio eta ardurakidetzeta foroa bultza eta arautu dezan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bidez, kultur politikak taxutzea bermatzeko xedez. Kultura eta Kiroleko Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultura-ekitaldiak egiteko protokolo bat egin dezan, kultura-eragileekin lankidetzan. Kultura eta Kiroleko Batzordeak onetsia (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Landarte” proiektuari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Nafarroako Museoa zaharberritzea” proiektuari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Nafarroako Kulturaren Behatokia” proiektuari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Nafarroako Kulturaren Atari Digitala” proiektuari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Kulturaren Zentro Teknikoa eraikitzea” proiektuari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (9. or.).

- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Navarra Music Commission” proiektuari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Animazioaren sektorea internalizatzeko plana” proiektuari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Kirol sektorearen eraldaketa digitalerako plana” proiektuari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Ikus-entzunezko HUB-a” proiektuari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpenaren eremu ureztagarriko eremu osagarriak Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planeko jarduketan zerrendan sartzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Ertzilako Partzuergoak iturburuan obrak egiteari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako areto multifuntzionalen egoerari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko kontingentzia plana dela-eta Parlamentuko Mahaiak hartutako erabaki indarduna luzatzea (15. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sarrigurengo Udalez gaindiko Plan Sektoriala alda dezan.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sarrigurengo Udalez gaindiko Plan Sektoriala alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Gaur egun, Sarrigurengo Institutuak 12 gela arrunt ditu. 2021ean bukatu beharko dira bigarren solairua handitzeko obrak. Horrela, gela arrunten kopurua bikoiztuko da, eta ikastetxeak hainbat bulego, laborategi, sail, komun eta korridore berri izanen ditu.

Datozen hilabeteotarako aurreikusi da hurrengo handitzearen lizitazioa; bolumen berri bat izanen da, ondoan dagoen DD14 lurzatian, eta

horrela beteko dira Eguesibarko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko beharrianak.

Gaur egun Eguesibarko Bigarren Hezkuntzako Institutua eraikita dagoen FP1 lurzatia eta handitzea aurreikusita dagoen DD14 lurzatia Urederra kaleko oinezkoentzako tarte batek bereizten ditu.

Izquierda-Ezkerrarentzat ezinbestekoa da bi bolumenak batzea Sarriguren BHIko instalazio guztiak integratuko dituen hezkuntza-espazio bakarra lortzeko.

Eraikin bakarra funtzionalagoa da eremu komunen erabilerari dagokionez; curriculumaren espazioak, denborak eta jarduerak antolatzea errazten du, eta ikastetxearen energia eta funtzionamendu-gastuak aurrezteak dakar.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, urgentziaz alda dezan Sarrigurengo Udalez gaindiko Plan Sektoriala, Sarriguren BHIko FP1 eta DD14 lurzatiekin mugatzen duen Urederra kaleko oinezkoentzako tarte lurzatiekin batera hezkuntza-espazio bakarrean integratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du, eraikuntza berria gaur egungo eraikina handituz egin dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Eguesibarko Udala premiatzen du, Nafarroako Gobernuari laga diezaion Urederra Iturburua kaleko oinezkoentzako tarte. Ibaia eta Elizmendi kaleen artekoa, Sarriguren BHIko proiektuan sartzeko.

Iruñean, 2020ko azaroaren 27an

Eleduna: María Luisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua egokitu dezan, ekidite aldera kontratazio publikoan hura abusuzko moduan eta proportziorik gabe interpretatzea.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua egokitu dezan, ekidite aldera kontratazio publikoan hura abusuzko moduan eta proportziorik gabe interpretatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Jakinaren gainean gaude abusuzko moduan eta proportziorik gabe interpretatzen ari dela Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretua, Nafarroako zenbait udaletan eta Nafarroako Gobernuaren deialdietan aplikatzerakoan.

Adibide bat dugu Nafarroako udal bateko enplegu publikorako deialdi bat, oposizio bidez eratzeko garbiketa-lanak egiteko aldi baterako

kontratatu diren izangaien zerrenda, euskarazko A2 hizkuntza-eskakizunarekin, eskolatze-ziurtagiria edo baliokidea edukitzeaz gain. Udalerri horretan euskarazko hizkuntza-eskakizuna ezartzearekin lanpostu horretara iristea mugatuta geratzen da populazioaren % 60 baino gehiagorentzat.

Agerikoa da lanpostu horretarako ez dela euskaraz jakin behar eta, beraz, deialdi horrek eta ezaugarri berak dituztenek urratu egiten dituztela berdintasunaren, merezimenduaren eta eta gaitasunaren printzipioak, enplegu publikora iristeko.

Badira beste deialdi batzuk, zeinetan merezimendu bakarra baita euskaraz jakitea, bazter utzita edozein merezimendu, esperientziakoa zein beste gaitasun edo titulazioei buruzkoa.

Beste deialdi batzuetan merezimendu gisa aitortzen da atzerriko hizkuntzak jakitea, baina ez Nafarroako hizkuntza koofizialetako bat, euskara hain zuzen, jakitea, eta hori egungo foru dekretuaren espirituaren aurkakoa da.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lau hilabeteko epean 103/2017 Foru Dekretua egokitu dezan Parlamentuan, hala-ko moduan non ondokoa bermatuko baita:

– Euskara jakitea/titulazioa edukitzea merezimendu gisa baloratzea beste hizkuntzak baloratzen diren deialdietan.

– Hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuek lanpostuaren eginkizunei erantzutea.

– Euskara jakitea/titulazioa edukitzea ez izatea merezimendu bakarra inongo deialditan. Alegia, batean sartuko da, non kontuan hartuko baitira lanpostuarekin lotutako beste merezimen- du batzuk, esate baterako esperientzia eta prestakuntza.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Eleduna: María Luisa de Simón Caballero

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako udalekiko koordinazio eta ardurakidetzaren foroaren bidez, kultur politikak taxutzea bermatzeko xedez.

KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordeak, 2020ko abenduaren 2an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako udalekiko koordinazio eta ardurakidetzaren foroaren bidez, kultur politikak taxutzea bermatzeko xedez”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dugu. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako udalekiko koordinazio eta ardurakidetzaren foroaren bidez, kultur politikak taxutzea bermatzeko xedez”.

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultura-ekitaldiak egiteko protokolo bat egin dezan, kultura-eragileekin lankidetzan.

KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordeak, 2020ko abenduaren 2an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultura-ekitaldiak egiteko protokolo bat egin dezan, kultura-eragileekin lankidetzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dugu. Hona testua:

“1 Nafarroako Parlamentuak Kultura eta Kirol Departamentua premiatzen du, Osasun Departamentuarekin batera eta kulturaren arloko eragileekin lankidetzarekin, kultura-ekitaldiak egiteko protokolo bat egin dezan, beste erregio eta herrialde batzuetan egindako esperientzia ezagututa, Nafarroan baldintza eta neurri onenak baloratuz, jasotako ebidentzietan eta irizpide epidemiologikoetan oinarrituta. Foru Komunitateko kultura-instala-

zioen egoeraren mapa egin ondoren, protokolo hori homologagarria izan da kultura-ekitaldiak programatzen dituzten sektoreko eragile guztientzat, betiere osasun-neurriak bermatzeko instalazio bakoitzak dauzkan berezko ezaugarriak eta premiak ahaztu gabe.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kulturaren sektoreko eragileak lagundu ditzan, aholkularitza, logistika eta zuzkidura ekonomikoen bidez, kultura-espazioetan ahal den arinen behar diren inbertsioak eta egokitzapenak egiteko, ekitaldiak egiterakoan osasun-segurtasun handiagoa bermatze aldera eta horrela edukieraren murrizketak gutxiagotu ahal izateko, kulturaren sektorea dinamizatzeko helburuarekin”.

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Landarte” proiektuari buruzkoa.*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Landarte” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kultura eta Kirol Departamentuak “Landarte” proiektua aurkeztu du Next Generation funtsetarako.

1. Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 2026ra arte?

2. Nafarroako Gobernuak zer zenbatespen ekonomiko egiten du proiektu horretarako Next Generation UEko funtsetatik bideratutakoari dago-kionez?

3. Proiektu horrek Europako funtsetako dirulaguntzarik lortu ezean, Nafarroako Gobernuak aurrera eramateko asmorik al du baliabide berekiekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Nafarroako Museoa zaharberritzea” proiektuari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Nafarroako Museoa zaharberritzea” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kultura eta Kirol Departamentuak “Nafarroako Museoa zaharberritzea” proiektua aurkeztu du Next Generation funtsetarako.

1. Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 2026ra arte?

2. Nafarroako Gobernuak zer zenbatespen ekonomiko egiten du proiektu horretarako Next Generation UEko funtsetatik bideratutakoari dago-kionez?

3. Proiektu horrek Europako funtsetako dirulaguntzarik lortu ezean, Nafarroako Gobernuak aurrera eramateko asmorik al du baliabide berekiekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Nafarroako Kulturaren Behatokia” proiektuari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Nafarroako Kulturaren Behatokia” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kultura eta Kirol Departamentuak “Nafarroako Kulturaren Behatokia” proiektua aurkeztu du Next Generation funtsetarako.

1. Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 2026ra arte?

2. Nafarroako Gobernuak zer zenbatespen ekonomiko egiten du proiektu horretarako Next

Generation UEko funtsetatik bideratutakoari dago-kionez?

3. Proiektu horrek Europako funtsetako dirulaguntzarik lortu ezean, Nafarroako Gobernuak aurrera eramateko asmorik al du baliabide berekiekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Nafarroako Kulturaren Atari Digitala” proiektuari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Nafarroako Kulturaren Atari Digitala” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kultura eta Kirol Departamentuak “Nafarroako Kulturaren Atari Digitala” proiektua aurkeztu du Next Generation funtsetarako.

1. Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 2026ra arte?

2. Nafarroako Gobernuak zer zenbatespen ekonomiko egiten du proiektu horretarako Next Generation UEko funtsetatik bideratutakoari dago-kionez?

3. Proiektu horrek Europako funtsetako dirulaguntzarik lortu ezean, Nafarroako Gobernuak aurrera eramateko asmorik al du baliabide berekiekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Kulturaren Zentro Teknikoa eraikitzea” proiektuari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Kulturaren Zentro Teknikoa eraikitzea” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kultura eta Kirol Departamentuak “Kulturaren Zentro Teknikoa eraikitzea” proiektua aurkeztu du Next Generation funtsetarako.

1. Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 2026ra arte?

2. Nafarroako Gobernuak zer zenbatespen ekonomiko egiten du proiektu horretarako Next Generation UEko funtsetatik bideratutakoari dago-kionez?

3. Proiektu horrek Europako funtsetako dirulaguntzarik lortu ezean, Nafarroako Gobernuak aurrera eramateko asmorik al du baliabide berekiekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Navarra Music Commission” proiektuari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Navarra Music Commission” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kultura eta Kirol Departamentuak “Navarra Music Commission” proiektua aurkeztu du Next Generation funtsetarako.

1. Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 2026ra arte?

2. Nafarroako Gobernuak zer zenbatespen ekonomiko egiten du proiektu horretarako Next

Generation UEko funtsetatik bideratutakoari dagokionez?

3. Proiektu horrek Europako funtsetako dirulaguntzarik lortu ezean, Nafarroako Gobernuak aurrera eramateko asmorik al du baliabide berekiekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Animazioaren sektorea internalizatzeko plana” proiektuari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Animazioaren sektorea internalizatzeko plana” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kultura eta Kirol Departamentuak “Animazioaren sektorea internalizatzeko plana” proiektua aurkeztu du Next Generation funtsetarako.

1. Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 2026ra arte?

2. Nafarroako Gobernuak zer zenbatespen ekonomiko egiten du proiektu horretarako Next Generation UEko funtsetatik bideratutakoari dagokionez?

3. Proiektu horrek Europako funtsetako dirulaguntzarik lortu ezean, Nafarroako Gobernuak aurrera eramateko asmorik al du baliabide berekiekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Kirol sektorearen eraldaketa digitalerako plana” proiektuari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Kirol sektorearen eraldaketa digitalerako plana” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

en Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kultura eta Kirol Departamentuak “Kirol sektorearen eraldaketa digitalerako plana” proiektua aurkeztu du Next Generation funtsetarako.

1. Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 2026ra arte?

2. Nafarroako Gobernuak zer zenbatespen ekonomiko egiten du proiektu horretarako Next Generation UEko funtsetatik bideratutakoari dago-kionez?

3. Proiektu horrek Europako funtsetako dirulaguntzarik lortu ezean, Nafarroako Gobernuak aurrera eramateko asmorik al du baliabide berekiekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Ikus-entzunezko HUB-a” proiektuari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Ikus-entzunezko HUB-a” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kultura eta Kirol Departamentuak “Ikus-entzunezko HUB-a” proiektua aurkeztu du Next Generation funtsetarako.

1. Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 2026ra arte?

2. Nafarroako Gobernuak zer zenbatespen ekonomiko egiten du proiektu horretarako Next

Generation UEko funtsetatik bideratutakoari dagokionez?

3. Proiektu horrek Europako funtsetako dirulaguntzarik lortu ezean, Nafarroako Gobernuak aurrera eramateko asmorik al du baliabide berekiekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpenaren eremu ureztagarriko eremu osagarriak Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planeko jarduketan zerrendan sartzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bazarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpenaren eremu ureztagarriko eremu osagarriak Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planeko jarduketan zerrendan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Azaroaren 17ko 268. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen azaroaren 4ko 81/2020 Foru Dekretua, zeinak onesten baitu "Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpenaren" eremu urez-

tagarriko eremu osagarriak sartzea Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planeko jarduketan zerrendan.

Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpenaren eremu osagarri horiek jarduketako 2.730 hektareako azalera hartzen dute, Faltzes, Funes, Lerin, Sesma, Lodosa, Mendabia, Andosilla eta Carcar udalerrietan.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak erantzun ditzan:

2.730 hektarea horietan ureztatze ur kontsumoa baimenduta al dago Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emakida aldatzeko onetsi beharreko espedientearen bidez?

Noizko aurreikusten du Nafarroako Ubidearen Ureztatzaileen Elkartek Nagusiak, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko ur publikoen aprobetxamenduaren emakidaren egungo titularra baita, CHEri eskatzea aipatu emakida?

Ez litzateke komenigarri izanen, eremu ureztagarri horretan sartutako zonaldeetan edozein obra hasi aurretik, dagokion emakida eskuratzea Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren aldetik?

Iruñean, 2020ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Ertzilako Partzuergoak iturburuan obrak egiteari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Ertzilako Partzuergoak iturburuan obrak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

2020ko abuztuaren 5ean Nafarroako Gobernuak argitaratutako prentsa-ohar batek, "Lurralde Kohesioak 700.000 euro inbertitu ditu Larraun-Leitzaldean tokiko azpiegiturak hobetzeko proiektuetan" izenburukoak, aditzera ematen zuen Ertzilako Partzuergoari 105.000 euroko dirulaguntza zego kiola.

2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean ezarritakoaren arabera, Ertzilako iturburu-araztegia bitarteko hodiaren berritze partziala (1.650 metro) proposatzen zen, 130.000 euroko zenbatekoarekin. Ulertu nahi dut proiektu bera dela, nahiz eta, jakin dugunaren arabera, proiektu hori ez den oraindik abiarazi.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten dizkiogu Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun diezazkion:

1).- Zertan dago, gaur egun, Ertzilako iturburu-araztegia bitarteko hodiaren berritze partziala?

2.- Nolakoa da proiektuaren finantzaketa? Toki inbertsioen planeko dirulaguntzaz gain, aurreikusi al da proiektuak dirulaguntza gehiagorik jasotzea beste entitate batzuen aldetik? Hala baldin bada, zein dira horiek?

3).- Nafarroako Gobernuak, Ertzilako Partzuergoko kide denez, bilerarik izan al du proiektua garatze aldera? Baiezkoan, zenbat bilera izan dira eta zer erabaki hartu dira? Zer urrats egiten ari da Partzuergoan Nafarroako Gobernuak proiektua aurrera eramate aldera?

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroako areto multifuntzionalen egoerari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako areto multifuntzionalen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zergatik ez die eskaintzen Nafarroako areto multifuntzionaleri egungo osasun egoerara baldintzatutako irekitze-plan bat, ostalaritzakoak ez diren jardueretarako, eta mantentzen ditu itxita ostalaritzako sektorea bezala, eta zergatik ez dituzte eskura aipatu sektorearentzat Gobernuak proposatzen dituen laguntzak?

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko kontingentzia plana dela-eta Parlamentuko Mahaiak hartutako erabaki indarduna luzatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana dela-eta Parlamentuko Mahaiak hartutako erabaki indarduna luzatzea.

2. Erabaki honek sinatzen den unean hartuko du indarra, eta 2020ko abenduaren 14a arte irauten du, egun hori barne. Egoera epidemiologikoa- ren arabera Mahaiak xedatzen ahalko du hura luzatzea, aldatzea edo bertan behera uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

